

## **BORTZIRIETAKO UDALEKU IREKIAK BERRIZ HASIKO DIRA UZTAILAREN 26AN**

Heldu den astelehenean, uztailak 26, udalekuak berriz hasiko dira Arantza, Bera, Etxalar eta Lesakan. Hala gomendatu digute Nafarroako Osasun eta Lan Institututik, gaia azertu eta ikusita ez dirudiela begiraleengandik haurrengana kasuen transmisio aipagarririk gertatu denik. Edozein kasutan, PCR proban negatibo eman zuten begiraleei bertze proba bat eginen zaie hasi aitzinetik.

Uztailaren 26ko asterako lehendik udalekuetan izen ematea egina zuten haurrak joan ahalko dira.

### **Dirua itzultzea**

Familia bakoitzari jarduera etenda egon den egunengatik dagokien dirua itzuliko zaio (beheko taularen arabera). Behar ekonomikoak izateagatik prezioaren % 50 ordaindu zutenek proportzio berean jasoko dute itzulketa.

Familiak datu hauek bidali beharko dituzte mankomunitatera ([euskara@bortziriak.eus](mailto:euskara@bortziriak.eus) / 680650650) abuztuaren 23ko 15:00ak baino lehen:

Haurraren izen-abizenak  
Kontu zenbakia (20 digito)

Aipatutako epemuga horretan datuak eman ez dituztenek itzulketa jasotzeko eskubidea galduko dute.

Mankomunitateko lehendakaria